FEDERACIÓN ALAVESA DE AJEDREZ

Campeonato Femenino de Álava 2026 - 2027

8, 9 y 10 de enero

La Federación Alavesa de Ajedrez convoca el Campeonato de Álava Femenino 2027, que se celebrará los días 9 y 10 de enero de 2027 en los Frontones Beti Jai de Mendizorroza, en Vitoria-Gasteiz. El campeonato será valedero para ELO FIDE STANDARD.

1. PARTICIPACIÓN

Podrán participar todas las jugadoras federadas en la Federación Alavesa de Ajedrez con licencia en vigor para la temporada 2027.

2. INSCRIPCIÓN

La inscripción deberá realizarse antes de las 20:00 horas del lunes 21 de diciembre de 2026, mediante correo a falajedrez@gmail.com o, preferiblemente, a través de los clubes a los que pertenezcan las jugadoras.

3. ORGANIZACIÓN Y COMITÉ DE COMPETICIÓN

La organización del campeonato corresponde a la Federación Alavesa de Ajedrez. El comité de competición estará formado por representantes de diferentes clubes participantes (2, si los hubiese), así como el árbitro/a, y resolverá cualquier aspecto no contemplado expresamente en estas bases, de arreglo a la normativa FIDE.

4. SISTEMA DE JUEGO, SALA DE JUEGO Y CALENDARIO

El campeonato se disputará en los Frontones Beti Jai de Mendizorroza. El calendario definitivo se establecerá tras conocer el número total de jugadoras inscritas. El número de rondas y el sistema de juego se adaptarán a dicho número conforme a los siguientes criterios:

3 o 4 jugadoras: Liga a doble vuelta. Rondas:

- Sábado 9: 10:00 / 12:30 / 17:30
- Domingo 10: 10:00 / 12:30 / 17:30

5 a 15 jugadoras: Suizo a 5 rondas. Rondas:

- Sábado 9: 10:00 / 12:30 / 17:30
- Domingo 10: 10:00 / 12:30

Más de 15 jugadoras (16 en adelante): Suizo a 7 rondas. Rondas:

- Viernes 8: 18:00
- Sábado 9: 10:00 / 12:30 / 17:30

- Domingo 10: 10:00 / 12:30 / 17:30

En caso de sistema suizo a 7 rondas, se podrán solicitar hasta dos byes de 0,5 puntos, pero nunca en las dos últimas rondas. En caso de suizo a 5 rondas, un bye de 0.5 puntos, nunca en la última ronda. En caso de una liga a vuelta simple, no se admitirán byes. Los byes de Ronda 1 deberán solicitarse antes del 7 de enero, y el resto, antes de acabar la ronda previa al bye a solicitar.

5. RITMO DE JUEGO Y TIEMPO DE ESPERA

El ritmo de juego será de 45 minutos + 15 segundos de incremento por jugada, desde el primer movimiento. La jugadora que no se presente en los 30 minutos posteriores al inicio oficial de la ronda perderá la partida por incomparecencia.
La incomparecencia injustificada a una ronda supondrá la expulsión automática del torneo. La segunda incomparecencia, justificada o no, supondrá la eliminación del torneo.

6. DESEMPATES

En caso de empate a puntos en la clasificación final, se aplicarán los siguientes criterios:

1) Resultado particular (en caso de empate entre dos participantes)
2) Buchholz -1
3) Buchholz total
4) Mayor número de partidas ganadas (WON)
5) Mayor número de partidas con piezas negras

7. PREMIOS

Se entregarán trofeos a los tres primeras clasificadas del torneo. Asimismo:

- Las dos primeras clasificadas obtienen plaza directa para el Campeonato de Euskadi Femenino organizado por la Federación Vasca de ajedrez.
- Se entregará a la campeona inscripción gratuita al III. Open Internacional Ciudad de Vitoria - Gasteiz, en caso de que llegue a celebrarse.

Cualquier otro premio adicional o reconocimiento será comunicado previamente al inicio del campeonato.

8. PROTECCIÓN DE DATOS Y ACEPTACIÓN

La participación en el torneo implica la aceptación de estas bases y la autorización para publicar datos personales (nombre, resultados, fotos, etc.) en medios de comunicación y redes sociales vinculados al evento, y a la organización.

ARABAKO XAKE FEDERAZIOA
2026-2027KO ARABAKO EMAKUMEEN XAKE TXAPELKETA
Urtarrilaren 8an, 9an eta 10ean

Arabako Xake Federazioak 2027ko Arabako Emakumeen Xake Txapelketa antolatzen du. Txapelketa 2027ko urtarrilaren 9an eta 10ean jokatuko da, Gasteizko Mendizorrotzako Beti Jai pilotalekuetan. Txapelketa FIDE STANDARD ELOrako baliagarria izango da.

1. PARTE-HARTZEA

Arabako Xake Federazioan federatuta dauden eta 2027ko denboraldirako lizentzia indarrean duten emakumezko jokalari guztiek parte hartu ahal izango dute.

2. IZEN-EMATEA

Izen-ematea 2026ko abenduaren 21an, astelehena, 20:00ak baino lehen egin beharko da, mezu elektroniko bat bidaliz helbide honetara: falajedrez@gmail.com , edo, ahal dela, jokalarien kluben bidez.

3. ANTOLAKETA ETA LEHIAKETA BATZORDEA

Txapelketa Arabako Xake Federazioak antolatuko du. Lehiaketa Batzordea parte hartzen duten klub desberdinetako ordezkariek (2, halakorik balego) eta arbitroak osatuko dute. Batzordeak oinarri hauetan berariaz jasota ez dauden gai guztiak ebatziko ditu, FIDEren araudiaren arabera.

4. JOKO-SISTEMA, JOKALEKUA ETA EGUTEGIA

Txapelketa Mendizorrotzako Beti Jai pilotalekuetan jokatuko da. Behin izena emandako jokalarien kopuru osoa jakinda, behin betiko egutegia ezarriko da. Txanda kopurua eta joko-sistema kopuru horretara egokituko dira, honako irizpide hauen arabera:

3 edo 4 jokalari: bi itzuliko liga. Txandak:
- Larunbata, hilak 9: 10:00 / 12:30 / 17:30
- Igandea, hilak 10: 10:00 / 12:30 / 17:30

5 eta 15 jokalari artean: 5 txandako sistema suitzarra. Txandak:
- Larunbata, hilak 9: 10:00 / 12:30 / 17:30
- Igandea, hilak 10: 10:00 / 12:30

15 jokalari baino gehiago (16 aurrera): 7 txandako sistema suitzarra. Txandak:
- Ostirala, hilak 8: 18:00
- Larunbata, hilak 9: 10:00 / 12:30 / 17:30

- Igandea, hilak 10: 10:00 / 12:30 / 17:30

7 txandako sistema suitzarrean, gehienez bi *bye* eskatu ahal izango dira, bakoitza 0,5 puntukoa, baina inoiz ez azken bi txandetan. 5 txandako sistema suitzarrean, 0,5 puntuko *bye* bakarra eskatu ahal izango da, baina inoiz ez azken txandan. Itzuli bakarreko liga jokatuz gero, ez da *bye*rik onartuko. 1. errondako bye-ak urtarrilaren 7a baino lehen eskatu beharko dira, eta gainerakoak, eskatu nahi den bye-aren aurreko txanda amaitu baino lehen.

5. JOKO-ERRITMOA ETA ITXAROTEKO DENBORA

Joko-erritmoa 45 minutukoa izango da, gehi 15 segundoko gehikuntza jokaldi bakoitzeko, lehen mugimendutik aurrera. Txanda ofizialki hasi eta hurrengo 30 minutuetan aurkezten ez den jokalariak partida galduko du agertu ez izanagatik.

Txanda batera justifikaziorik gabe ez agertzeak txapelketatik automatikoki kanporatzea ekarriko du. Bigarren aldiz ez agertzeak, justifikatuta egon ala ez, txapelketatik kanporatzea ekarriko du.

6. BERDINKETAK HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Azken sailkapenean puntuetan berdinketa gertatuz gero, honako irizpide hauek aplikatuko dira:

1. Elkarren arteko emaitza (bi parte-hartzaileren arteko berdinketa dagoenean).
2. Buchholz -1.
3. Buchholz osoa.
4. Irabazitako partida kopuru handiena (WON).
5. Pieza beltzekin jokatutako partida kopuru handiena.

7. SARIAK

Txapelketako lehen hiru sailkatuei garaikurrak emango zaizkie. Horrez gain:

- Lehenengo eta bigarren sailkatuek Euskadiko Xake Federazioak antolatutako Euskadiko Emakumeen Txapelketan zuzenean parte hartzeko plaza lortuko dute.
- Txapeldunari Gasteizko Nazioarteko III. Open Txapelketan izena emateko doako inskripzioa emango zaio, txapelketa hori azkenean antolatzen bada.

Beste edozein sari edo aitortza osagarri txapelketa hasi aurretik jakinaraziko da.

8. DATUEN BABESA ETA OINARRIEN ONARPENA

Txapelketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea eta ekitaldiarekin eta antolakuntzarekin lotutako komunikabideetan eta sare sozialetan datu pertsonalak (izena, emaitzak, argazkiak eta abar) argitaratzeko baimena ematea dakar.